

## UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTA

2018ko maiatzaren 24ko 9:30etan, Bilboko Ikerbasqueren egoitzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzardea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziako zuzendari Eva Ferreira andrea, Joaquín Losada jauna, Cristina de la Cruz Ayuso andrea, Eunate Elio andrea, Manuel de León jauna, Jean Yves Puyo jauna, Diego Sánchez jauna, Sandrine Sana-Chaillé andrea eta Ruth Zimmerling andrea.

Ezin etorria adierazi dute: Teresa Riesgo andreak eta Endika Bengoetxea jaunak.

Unibasqen aldetik Aitor Zurimendi jauna (Zuzendari Ondokoa) eta Eva Fdz. De Labastida andrea (Nazioartekotze eta Proiektuen arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda:

- 1) Aurreko bileraren akta irakurri eta onartzea. (O)  
**Akta onartzen da.**
- 2) Zuzendariaren txostena.
- 3) Titulazioen Ebaluazio Batzordetarako eta Unibertsitateen Onespenerako Ebaluazio Batzorderako kideak izendatzea. (O)  
**Proposatutako kideak onartzen dira.**
- 4) AUDIT Batzardeak egindako AUDIT programari buruzko gogoeta txostenaren aurkezpena – Aurrerantzean egingo den bir-egiaztapen instituzionalaren ikuspuntua.
- 5) ENQAren kanpo ebaluaziorako autotxostenaren zirriborroaren aurkezpena.
- 6) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloaren zirriborraren aurkezpena.
- 7) Galderak eta eskaerak.

(O) Onarpen puntua.